

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

R16/2016 Ebazpena

28/2011 Espedientea

Vitoria-Gasteiz hiria, 2016ko uztailaren 28a

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburu eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekide dituenak, honako hau

ERABAKI DUTE

Bizkaiko Foru Aldundiak Estatuko Zerga Administrazioaren aurrean 2011ko apirilaren 6an abiarazitako prozeduran 1 ERAKUNDEAREN (IFZ: -----) 2007ko abenduaren 4az geroztiko helbide fiskalari dagokion desadostasuna dela medio, Arbitraje Batzorde honen aurrean izapidetuz 28/2011 espediente-zenbakiarekin, Isaac Merino Jara jauna txostengile modura jardunez.

I. AURREKARIAK

1.-2010eko maiatzaren 11n, Bizkaiko Foru Ogasunaren Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Sekzioak jakinarazpena igorri zuen. Bertan adierazten zenez, kudeaketa-prozeduran eskuratutako datuetan hainbat zantzu daude aipatu merkataritza-enpresaren helbide fiskala zuzena ez dela jotzekoak. Errolda Fiskalen Sekzioak txostena eskatu zion Zerga Ikuskaritzaren Zuzendariordetzari 2010eko maiatzaren 13an.

2.-Eskaera horren ondorioz, 2009ko epealdiari dagokion helbide fiskala egiaztatzeari ekin zitzaion, eta 2010eko ekainaren 18an dagokion txostena eratu zen. Txosten horretan adierazten zenez, Bizkaiko Foru Ogasunean eskuragarri dagoen informazioa eta egindako egiaztapenak (zehazki, 2010eko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

maiatzaren 26an eta 2010eko ekainaren 14an egindako eginbideetan dokumentatutakoak) kontuan hartuta, ildo horretatik doazen gertakariak eta inguruabarrak daudela egiaztatzen da. Egoera horren aurrean honako hau ondorioztatu zen:

“1 ERAKUNDEAREN (IFZ: -----) helbide fiskala Lleidan kokatzen da, izan ere, 2010eko ekainaren 3ra arte (egun horretan Bilbon helbideratutako 1 ADMINISTRARIARI helbidea eraginkor egiteko nahikoa ahal eman zitzaion) sozietatea Euskaditik kanpo helbideratutako bere 2 administrarien bidez zuzendu zen, eta fakturen artean ez dago horietako bat Bilbon egon izana erakusten duen bidaiekin edo egonaldiekin lotutakorik. Halaber, orain arte egindako jarduera urriak Lleidan egindako inbertsio bat erakusten du, zenbait garaje baitaratzekoa, alokatzeko asmoz adierazten denez. Dena den, orain arte ez da frogatu helburu horretara bideratutako jarduerarik dagoenik. Halaber, Kataluniako arkitektura-estudio bati dagokion ordainsariak ikus daitezke, 1 UDALERRIAN (LLEIDA) egindako proiektu eta obra-zuzendaritza batengatik.

Horrenbestez, orain arte administrariak (sozietatearen gidaritza egiaz burutzeko nahikoa ahal zuten bakarrak liratekeenak) Lleidan helbideratuta zeudenez, egiaz erabiltzen ziren kontu korronteak Lleidako sukurtsaletan zeudenez irekita eta inbertsioak ere han burutu direnez, logikoa dirudi pentsatzea zerga ondorioetarako helbidea Lleidan egon dela lekututa eta Bilbotik kanpo aholkularitza- eta kontabilitate-lanak baino ez direla egin.

Haatik, 2010ean egindako eskriturak eta kontu korrontea ireki izana kontuan hartuz, badirudi helbide eraginkorra Bilbora aldatzeko asmoa berresten dela, 2010eko ekainetik aurrera.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

Helbidea aldatzearen ondorioak 2007ko abenduaren 4ra atzeratzea proposatzen da txosten honetan. Egun hartan sozietatea 1 BAZKIDEAK, 2 BAZKIDEAK eta 3 BAZKIDEAK hartu zuten, bazkide bakar modura [egiaz, 1 ADMINISTRARIA ere bazkidea zen egun hartan] izena, helburu soziala eta deklaraturako helbidea aldatuz. Horrenbestez, egun horretatik aurrera hasi ziren txosten honetan deskribatzen diren inguruabarrak. Ondoren, kapital-zabalkuntza bat burutu zen 1 UDALERRIAN (LLEIDA) lekututako orube batekin, 1 NOTARIOAK eskritura bidez dokumentatua Madrilen. Horrenbestez, pentsa daiteke inbertsioetarako jardueren gunea 1 ESKUALDEAN (LLEIDA) lekutzen dela.

3.- Helbidea aldatzeko espediente horretan dokumentu hauek barneratzen dira:

- Madrilen emandako 2008ko azaroaren 25eko data duen eskritura publikoaren fotokopia, kapital soziala 386.022 euroan gehitzeko (sozietateko beste 386.022 partizipazio jaulki eta zirkulazioan jarriz, 1 BAZKIDEARI, 2 BAZKIDEARI eta 3 BAZKIDEARI esleituak sozietateari 386.022 eurotan balioetsitako eta jabetza indibisoko lursail bat ematean egindako diruz aparteko ekarpenaren kontraprestazio modura) sozietateen akordioak jendaurrera eramatekoak (egiaz, eskriturako 4 orrialde baino ez dira agertzen). Akordio hori erakundearen helbide sozialean hartu zen.
- Deklarazio eta likidazioaren (600 modelo) fotokopia, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari dagokiona, 3.860.22 euroko zenbatekoaz, 2008ko azaroaren 25ean egindako kapital-zabalkuntzari dagokiona, BFAn aurkeztua. Bertan 1 ERAKUNDEAREN helbide modura Bilboko 1 HELBIDEA agertzen da, eta dokumentuaren aurkezten duen pertsona modura 1 ORDEZKARIA agertzen da, Bilboko 1 HELBIDEAN.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

-Azken auto-likidazioaren fotokopia, BEZ zergaren 390 modeloaren 2008ko ekitaldiari dagokiona, modu telematikoan aurkeztua 1 AHOLKULARITZA-ETXEAREN bidez BFAn 2009ko urtarrilaren 30ean, 13.581,66 euro konpentsatzeko emaitza agertzen duena.

-Azken auto-likidazioaren fotokopia, BEZ zergaren 390 modeloaren 2009ko ekitaldiari dagokiona, modu telematikoan aurkeztua 1 AHOLKULARITZA-ETXEAREN bidez BFAn 2010eko urtarrilaren 28an, 24.025,00 euro itzultzeko emaitza agertzen duena.

- 2008ko Sozietateen gaineko Zergaren auto-likidazioaren 3. orrialdearen fotokopia (200 modeloa), BFAn aurkeztua 2009ko uztailaren 24an, non 1 ERAKUNDEAREN administrari modura hurrengo hirurak identifikatzen baitira: 3 BAZKIDEA, 1 BAZKIDEA eta 1 ADMINISTRARIA.

-BFAk erakundeari egindako eskakizuna, 2010eko martxoaren 2ko data duena, 2009ko ekitaldiari dagokion BEZ zergaren urteko deklarazioarekin lotutako dokumentazioa eskatuz, zehazki:

-2008 eta 2009 ekitaldietan igorri eta jasotako fakturak erregistratzeko liburuen fotokopia

-egindako inbertsio-ondasunak baitaratzeko fakturen fotokopia

-sortutako BEZ zergaren eta jasandako BEZ zergaren arteko aldearen azalpena

-jarduera abiatzeko aurreikusitako eguna aipatzen duen adierazpena

-2008 eta 2009 ekitaldietan jasotako fakturen kopia

-Eskakizun horri 3 BAZKIDEAK eta 1 BAZKIDEAK emandako erantzuna erakundearen izenean eta hura ordezkatzuz, 2010eko martxoaren 16an

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

BFAn erregistratutako idatzi bidez. Bertan, eskatutako dokumentazioa gaineratzeaz gain, adierazten denez, “sozietateak hainbat inbertsio burutu ditu eratu zenetik, bere helburu soziala osatzen dutenak, horien artean garajeen partzela zenbait, zeintzuk alokairu bidez ustiatu diren 2010eko ekitaldian. Horrez gain, beste zenbait inbertsio agertzen dira, higiezin baten eraikuntzarekin lotutako ikerketa eta obren proiektuari dagozkionak, bi hilabete barru hasiko dena, orduan aurreikusten baita hura gauzatzen hasteko beharrezkoak diren baimen eta lizentziak eskuratzea”

-2 UDALERRIAN (LLEIDA) emandako eskrituraren, 2010eko ekainaren 3ko data duena, fotokopia, Administrazio-organoaren egitura aldatzeko eta karguak izendatzeko sozietatearen akordioak jendaurrean ezartzekoak, eta merkataritza-ahalerako eskrituraren fotokopia, egun horretan eta notaritza berean igorria 1 ADMINISTRARIAREN aurrean.

-Helbidea aldatzeko espedientean agertzen diren fakturetan ikus daitekeenez, 1 ERAKUNDEA hartzaile modura agertzen den guztietan, azaltzen den helbidea Bilboko 1 HELBIDEA da beti. Horien artean 2008ko urriko 24ko data duen faktura bat dago, 6.499,79 eurokoa, gehi BEZ, 1 AHOLKULARITZA-ETXEAK(Aholkularitza Fiskal, Merkataritza eta Juridikoa) hurrengo kontzeptuengatik sorrarazitako ordainsariei dagokiona: estatutuko aldaketa eta egokitzapenak 1 ERAKUNDEAK egun duen egitura lortu arte; Lleida eta Bilboko notariotzetan egindako zenbait esku-hartze prestatzeko lanak; Ogasunekin harremanak Sozietateen gaineko zergaren, BEZ zergaren, JEZ zergaren, zentsu-transmisioen eta zatikako ordainketen deklarazio eta likidazioengatik; kontratuak eta kontabilitatea. Halaber, bada 2009ko martxoaren 2ko data duen beste faktura bat, 1.528,29 euroko zenbatekoa, gehi BEZ, agertzen duena, aholkularitza-etxe berak, besteak beste, kontzeptu hauengatik sorrarazitako ordainsariei dagokiona: kapital-zabalkundearen eskritura

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

aztertu eta izapidetzea eta Ondasunak Eskualdatze eta Dokumentatutako Egintza Juridikoen gaineko Zergaren auto-likidaziorako dagokion deklarazioa aurkeztea Bizkaiko foru ogasunean; 2008ko azken hiruhilekoari dagokion kontabilitatea; BEZ zergaren (390) eta PFEZ zergaren (190) urteko deklarazioen likidazioa; 2009ko lehen hiruhilekoko kontabilitatea osatzea; 347 modeloaren deklarazioa egin eta aurkeztea (hirugarrenekin egindako eragiketen urteko deklarazioa). Halaber, ageriko ordainagiriak daude, bakoitza 150 euroko zenbatekoaz, gehi BEZ, 2009ko apiriletik abendura bitarteko hileetakoak, aholkularitza-etxe berak igorriak, hilabete horietako bere ordainsariei dagozkienak.

-Azkenik, dokumentazioan bada Bizkaiko Foru Aldundiaren Toki Zergak eta Zentsua Kontrolatzeko Zerbitzuruak sinatutako eranskin bat, 2010eko maiatzaren 13ko data duena. Bertan 1 ERAKUNDEAK 2007ko ekitaldian, dokumentu hori igorritako egunez, aurkeztutako deklarazio/auto-likidazioak zehazten dira. Hauexek dira datuak.

ekitaldia		BEZ	Sozietateen gaineko Zerga	Lanaren atxikipenak
	Epealdia	Eraitza	Eraitza	
2007	1. hh 2. hh 3. hh 4. hh	(jarduerarik gabe)	(deklarazio negatiboa)	
2008	1. hh 2. hh 3. hh 4. hh	(jarduerarik gabe) (jarduerarik gabe) (konpentsatu) -8.807,53 (konpentsatu) -13.581,66	-1.960,20 (itzulketa gauzatua)	85,29
2009	1. hh 2. hh 3. hh 4. hh	(konpentsatu) - 18.386,51 (konpentsatu) -22.888,51 (konpentsatu) -23.952,51 Itzulketa-eskaera -24.025,00 Itzultzeke		39,48 0,45
2010	1. hh 2. hh 3. hh 4. hh	(konpentsatu) -72,00		

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

4.-Bizkaiko Foru Ogasunaren Zerga Ikuskaritzaren Zuzendariordetzak igorritako aipatu txostena oinarritzat hartu zen Ogasuneko Zuzendari Nagusiak 2010eko ekainaren 23ko data duen proposamena egin zezan, helbide fiskala ofizioz aldatzeko.

-Proposamen hori Zerga Administrazioako Estatu Agentziara bidali zen 2010eko uztailaren 21ean, iritzia eman zezan. Zerga Administrazioako Estatu Agentziak 2011ko martxoaren 7an horrekin lotutako jakinarazpena igorri zuen, adieraziz helarazitako dokumentazioa eta egindako esku-hartzeak kontuan hartuta, proposatutako helbide fiskala atzeratzea ez dagokiola.

-2011ko martxoaren 22an Bizkaiko Foru Aldundiko Kudeaketa Zuzendariordeak planteatutako gatazkaren aurrean aldeko txostena eratu zuen Arbitraje Batzordearen aurrean, izan ere, Zerga Administrazioako Estatu Agentziarekin desadostasuna mantendu egiten zen.

-2011ko martxoaren 31n Bizkaiko Foru Ogasunaren Zerga Ikuskaritzaren Zuzendariordetzak Arbitraje Batzordearen aurrean jarritako gatazkari buruzko txostena eratu zuen. Bertan bere planteamendua proposatu zuen, besteak beste, hurrengo arrazoiak kontuan hartuz:

-1 ERAKUNDEAREN helburua higiezinaren sustapen, eraikuntza eta alokairua da eta ez du sekula burutu bere helburu sozialaren jarduera ekonomikoa Bizkaian, eta lurralde horretan ez du ibilgeturik ere.

-Sozietatearen negozioaren kudeaketa eta zuzendaritza egiazkoa ez da deklaraturako helbide fiskaletik egiten. Horren froga da Foru Ogasun honen BEZ Sekzioak eskatuta enpresak aurkeztutako jasandako BEZ zergari dagozkion fakturak, Bizkaian jasotako zerbitzuei egoztekoak, 1 AHOLKULARITZA-ETXEAREN notaritza, erregistro eta aholkularitzako gastuetara mugatzen direla, eta bere egiazko jarduera ekonomikoan

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

jasandako gainerako fakturak lurralde erkidean eskusiboki egindako zerbitzu eta erosketen ondorio dira.

-Sozietateak bere helbide sozial eta fiskala Bilbon du deklaraturik, 1 AHOLKULARITZA-ETXEAREN aholkularitza fiskal eta merkataritzakoaren egoitza berean, zeinarekin kontabilitatea eramateko eta jarraitzeko zerbitzua baitu kontratatuta. Hori ez da nahikoa negozioen kudeaketa zuzendaritza egiazkoa aipatu egoitzari esleitzeko.

-Kontabilitatea eta gainerako merkataritza-dokumentazioa (batzordeetako aktak, etab.) eraman eta jarraitzeko lekuaren betekizuna enpresa baten helbide fiskala finkatzeko nahikoa betekizun dela irizten bada, nahikoa erraza izango litzateke helbide fiskala kokatzea, bazkideei komeni moduan, egiazko jarduera ekonomikoaz eta negozioen egiazko zuzendaritzaz aparteko jarduera bati dagokion zerga-eremupean, eta horrek Zerga arloko Administrazioek horiek kudeatu, ikuskatu eta kontrolatzeko zailtasuna ekarriko luke.

-Halaber, 1 ADMINISTRARIA sozietateko administrari mankomunatu eta ahalordedun modura izendatu izana ere, 2010eko ekainaren 3an (bidez batez, Bizkaiko Foru Ogasunaren BEZ Sekzioak 2010eko martxoaren 8an eskakizuna egin ondotik egindako izendapena), ezin da nahikoa betekizun modura ulertu helbide fiskala aholkularitza fiskalak Bilbon duen egoitzan finkatzeko.

-Helbide fiskala zehazte aldera, garrantzitsua da kontuan izatea sozietateak bere jarduera ekonomiko guztia orain arte -Bizkaiko Foru Ogasunaren Zerga Ikuskaritzaren Zuzendariordeztzak berresten duenez- Lleidan burutu duela eta etorkizunean ere bere jarduera bertan garatzea aurreikusten duela, bertan bizi baitira bere bazkide maioritarioak, erabakitzeko ahalmena duten eta nahikoa ordezkariak duten bi

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

administrari mankomunatu bederen, eta sozietateak bertan orube bat eta bi garaje-plaza dituela.

-Enpresaren edozein erabaki estrategiko edo operatibo, hots, enpresa baten negozioak zuzentzea modura uler daitekeenarekin lotutako erabakiak, soilik hiru bazkide maioritariok edo sozietateko hiru administrarietako bik har ditzakete, guztiak lurralde erkidean bizi direlarik. [Espedientean ez da agertzen beharrezkoa denik hiru bazkide maioritarioren akordioa, baizik eta sozietateko hiru administrarietatik biren akordioa behar dela, baina guztiak ez dira lurralde erkidean bizi, horietako bat Bilbon bizi baita].

-Ibilgetu gehien dagoen lekuaren irizpide subsidiarioaren arabera ere, helbide fiskala Lleidako probintzian kokatuko litzateke.

5.-2011ko apirilaren 6an Bizkaiko Foru Aldundiak gatazka hau jarri zuen Zerga Administrazioko Agentzia Berezi honen aurrean, 1 ERAKUNDEAREN (IFZ: -----) helbide fiskala berresteari dagokionez, izan ere, hura 2007ko abenduaren 4az geroztik Lleidako probintzian dagoela ulertzen du.

6.-2012ko martxoaren 6an 1 ADMINISTRARIAK 1 ERAKUNDEA ordezkatzuz sinatutako idatzi bat, 2012ko otsailaren 22ko data duena, erregistratu zen Arbitraje Batzordean, honakoa adieraziz:

-2010eko urtarrilaren 28an Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean BEZ zergaren itzulketa eskatu zela 390 modelo aurkeztuta, 24.025 euroko zenbatekoan (guk argituko dugu zenbateko hori 13.581,66 eurori, 2008ko ekitaldian konpentsatzeko kuotari dagokiona, 10,443,34 euro, 2009ko ekitaldiko jasandako BEZ kengarriaren zenbatekoa, zenbatzearen ondoriozko batura dela).

-Ondoren, erakundeak eskaera bat jaso zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik itzultzeko eskatutako zenbatekoa islatzen zuten fakturak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

aurkezteko eta, ondoren, jakinarazi zitzaion aipatu Administrazioaren ustez gatazka bat zegoela bere helbide fiskalarekin lotuta, Lleidako probintzian kokatzen zela ulertuta.

-2011ko otsailaren 14an sozietatearen helbide fiskalean, Bilboko 1 HELBIDEAN, Zerga Administrazioako Estatu Agentziako aktuarial bat bertaratu zen, eta diligenzian adierazi zuen kontrola, kudeaketa, administrazioa eta erabakiak Bilboko sozietatearen helbidean gauzatzen zirela egiaztatzeko eskriturak, fakturak eta bestelako dokumentuak helarazi zitzaizkiola.

-Zerga Agentziak azaldutako eskumengabetasun-deklarazioaren aurrean, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak 2011ko apirilaren 7an gatazka Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordera eraman zela jakinarazi zigun.

-Honaino iritsita, gaineratzen du erakundeak, uste duenez “epeak behar bezala bete dira eta gaurdaino ez da ebazpenik eman, eta horrek kalte ekonomikoa suposatzen du sozietatearen bideragarritasun ekonomikoari begira hasierako inbertsioa gauzatzeko fase garrantzitsuan, are gehiago krisi garaiotan, eta are gehiago Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 15. artikuluan, bigarren puntuan, adierazten dena kontuan hartzen badugu, hots, *“Harik eta eskumen-gatazka ebazten ez den arte, kasuan kasuko zergadunak zergapetzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du ...”*. Horren ondorioz sozietateak, bere betebeharrak fiskalak betetz, 3.373,11 euro, 4.596,48 euro eta 3.455.69 euroko zenbateko ekonomikoa ordaindu behar izan du 2008, 2009 eta 2010 urteetako sozietateen gaineko zergen likidazioa dela medio. Haatik, gatazka honekin lotuta ebazteke ditu hainbat kreditu, esate baterako, eskatuta dituen BEZ zergen itzulketenak (2009ko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

ekitaldian 24.025 euro; 2010eko ekitaldian 11.373.14 euro eta 2011ko ekitaldian 64.222,47 euro).

Hori oinarritzat hartuta, erakundeak gatazka lehenbailehen ebatz dadila eskatzen du, bere jarduera ekonomikoarekin jarraitu ahal izateko”.

7.- Arbitraje Batzordeak, 2015eko martxoaren 2ko bilkuran, gatazkaren izapideak egitea onartzea erabaki zuen, eta horren berri eman zion zerga-administrazio interesatuei, baita erakundeari ere, Arbitraje Batzordearen Erregelamendua onartzen duen Errege Dekretuaren (abenduaren 28ko 1760/2007) 16. artikulua 4. zenbakiarekin bat etorriz, hilabeteko epean komenigarri deritzeten alegazioak formulatu zituzten.

8.- Zerga Administrazioako Estatu Agentziak alegazioak ipini zituen Arbitraje Batzorde honen aurrean 2015eko martxoaren 31ko data duen idatzi bidez, Correosen 2016ko apirilaren 10ean aurkeztua. Idatzi horretan gertakarien aurrekari hauek islatzen dira:

-2010eko uztailaren 21ean BFAk 1 ERAKUNDEAREN helbidea Bilbotik Lleidara aldatzeko proposamenaren berri eman zion Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, 2007ko abenduaren 4tik 2010eko ekainaren 3ra.

-Proposamen hori ikusita, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak erakundearen helbide fiskala egiaztatzeko prozedura bat gauzatu zuen, eta bi txosten igorri ziren horren harira: bat Lleidako Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Kudeaketarako Probintziako Bulegotik, 2010eko abuztuaren 10eko data duena; eta beste bat Bizkaiko Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Kudeaketarako Probintziako Bulegotik, 2011ko martxoaren 3ko data duena. Laburbilduz, Txosten horietatik honakoa ondorioztatzen da:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

-2 ERAKUNDEA Bilbon eratu zen 2005eko apirilaren 25eko eskritura publiko bidez, euro bateko 6.020 partizipazio sozialeko kapital sozial batekin, bere helbidea 3 UDALERRIKO 2 HELBIDEAN (Bizkaia) zuela adieraziz. Administrazio Kontseiluko kide guztiek Euskal Autonomia Erkidegoan zuten beren egoitza.

-2007ko azaroaren 28an sozietatearen partizipazioak 1 ADMINISTRARIARI (IFZ: ----) saldu zitzaizkion Bilbon, eta erakundeko bazkide bakar izatera pasa zen, helbidea Bilbon zuelarik.

-2007ko abenduaren 4an 2.007 partizipazio salerosteko eskritura publikoa onartu zen Bilbon 3 BAZKIDEAREN (IFZ: ----) alde eta beste 2.007 partizipazio 1 BAZKIDEAREN (IFZ: ----) alde. Bi partaide horiek Lleidan dute helbide fiskala, helbidea Euskadin duen 1 ORDEZKARIAK alde erosleen ordezkari modura jardunez.

-Era berean, 2007ko abenduaren 4an izen soziala aldatzeko eskritura publikoa onartu zen, eta sozietateak 1 ERAKUNDEA izena hartu zuen orduz geroztik. Halaber, egun berean erakundearen helbide soziala aldatzeko eskritura publikoa onartu zen, Bilboko 1 HELBIDERA aldatuz eta, aldi berean, bere helburu soziala ere aldatu egin zen. Hala, helburu soziala obra eta eraikin mota guztien sustapen eta eraikuntza eta aurretiaz zeuden eraikinen zaharberritzea eta, oro har, landa eremuko eta hiri eremuko lursail mota guztien salerosketa eta alokairua izango zen.

-2008ko urtarrilaren 10ean Lleidan eskritura publikoa onartu zen eta jendaurrean agertu ziren administrazio-organoa aldatzeko sozietatearen akordioak. Hala, 3 BAZKIDEA eta 1 BAZKIDEA (partaideak) izendatu zituzten administrazio mankomunatu.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

-2008ko uztailaren 3an zentsu-deklarazioaren 036 modeloa aurkeztu zen Bizkaiko Foru Aldundian.

-2008ko azaroaren 25ean 2 BAZKIDEARI, 3 BAZKIDEARI eta 1 BAZKIDEARI esleitutako sozietateko partizipazio berrietan egituratutako kapital gehikuntzari dagokion eskritura publikoa jaso zen Madrilen, horiek jabetza indibisoko lursail bat ematean egindako diruz aparteko ekarpenaren kontraprestazio modura.

-2 UDALERRIAN (Lleida) onartutako 2010eko ekainaren 3ko data duen partizipazioak salerosteko eskritura publikoan jendaurrean ipini ziren 1 ADMINISTRARIA administrari mankomunatu modura izendatzeko sozietatearen akordioak eta, era berean, egun horretan eta notariotza berean beste eskritura bat onartu zen, partizipazioak salerostekoa.

-Gizarte Segurantzaren datu-basean behatuta, egiaztatzen da ez dela agertzen bertan epealdian zehar alta egoeran langilerik duenik.

-Bestalde, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datu-basea behatuta, honakoa egiaztatzen da:

-Erakundearen (egiaz 2 ERAKUNDEA, argitzen dugu guk) helbide fiskal modura 2005eko apirilaren 25az geroztik, orduan eratu baitzen, 3 UDALERRIKO 2 HELBIDEA (Bizkaia) agertzen da eta, beranduago (horrako horretan 1 ERAKUNDE modura, argitzen dugu), 2008ko uztailaren 3an Bilboko 1 HELBIDEA agertzen da. Hots, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren arabera, helbide fiskala sekula ez da Euskaditik mugitu.

-Sozietateak aurkeztutako dokumentu guztiak (zentsu-deklarazioak, deklarazio fiskalak, etab.) Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean aurkeztu dira.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

- 1 ERAKUNDEAK hiru higiezin ditu bere jabetzan 2008. urteaz geroztik: 1 UDALERRIAN (Lleida) kokatutako orube bat eta bi garaje-plaza Lleidan.

-Erakundeak banku-kontu bat du irekita 1 UDALERRIAN (Lleida) kokatutako 1 BANKU-ERAKUNDEAREN sukurtsal batean. Kontu horretan ez da inolako mugimendurik ikusten 2008-2014 bitartean (ziurrenera, azken data 2010ekoa izango da, alegazioetarako oinarritzat hartutako txostenetako datak kontuan hartuta).

-Zerga Administrazioako Estatu Agentziak Bizkaian duen Delegazioaren Zerga Kudeaketarako Dependentziak bisita bat egin zuen 2011ko otsailaren 14an Bilboko 1 HELBIDEAN deklaraturako helbide fiskalera eta 1 ADMINISTRARIK egin zion harrera, administrari mankomunatu modura. Bada horren diligenzia, non datu nabarmen modura, hauek jasotzen diren:

-2008an egin zen jarduera Lleidan 2 garaje erostekoa izan zela eta erabakia 1 ADMINISTRARIK hartu zuela Bilbotik.

-Faktura guztiak Bilboko helbidera iristen direla.

-Kontabilitatea Bilbotik eramaten dela eta bertatik eraman izan dela betidanik.

Ondoren, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak gaineratzen du espedientean barneratzen diren dokumentuen artean hauek aurkitzen direla:

a) 2008ko urriaren 24ko data duen faktura bat, 1 AHOLKULARITZA-ETXEAK (IFZ: -----) igorria, non derrigorrezko zerga gisa zerga deklarazioen kudeaketari, kontabilitatea eramateari eta sozietateko kontratuen kudeaketari dagozkion ordainsariak likidatzen baitira. Sozietate horren egoitza bat dator 1 ERAKUNDEAREN helbidearekin,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

eta leku horretan burutzen du 1 ADMINISTRARIAK (gatazkaren xede den sozietatearen Administralari bakarra) bere jarduera. Hura, era berean, 1 AHOLKULARITZA-ETXEAREN ordezkarria da.

b) 2010eko maiatzaren 26ko eta 2010eko ekainaren 14ko bi diligentzia, Bizkaiko Foru Ogasunaren aktuarria batek igorriak erakundearen helbide fiskala berresteko prozeduraren barnean.

Lehen diligentzian zera adierazten da: “Aktuarria 1 AHOLKULARITZA-ETXEAREN 1 HELBIDERA bertaratuta, non 1 ADMINISTRARIAK bere jarduera burutzen duen. Gainera, 1 ERAKUNDEAREN administralari bakarra da, eta sozietatearen zuzendaritza eraginkorraz eta kontabilitate-liburuak mantentzeaz arduratzen da”.

Bigarren diligentzian zera islatzen da: “1 ADMINISTRARIA bulego hauetan bertaratuta, administralari mankomunatuak izendatzeko eskritura aurkeztu du, eta ahalordea emateko beste eskritura bat 1 ADMINISTRARIAREN izenean, erabateko botereaz. Azken horren kopia eskuratu eta itzuli egin zaio.

Adierazi du Akziodunen Batzordeko bilkurak Bilbon egiten direla, bere helbide sozialean. Bilboko 2 BANKU-ERAKUNDEAREN 1 SUKURTSALEAN (----- kalea) irekitako kontuaren zenbakia aurkeztu du. Adierazi du oraindik ez dela fakturarik igorri, eta jasotakoak deklaraturako helbidean jaso direla. Halaber, aipatu du sozietatea bere jarduna hasten ari dela, baina helburua higiezin eraikuntza eta salmenta dela maila nazionalean, baina egun deklaraturako helbidetik zuzenduta”.

c) sozietateak jasotako hainbat faktura, bere jardunarekin lotutakoak (zehazki, 2008ko uztailaren 31 eta irailaren 29 bitarteko data duten hiru).

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

Faktura horietan Bilboko 1 HELBIDEAN kokatutakoa agertzen da helbide sozial modura.

-Zerga Administrazioako Estatu Agentziak bere asmoaren (abendua 4az geroztik erakundearen helbidea Bilboko 1 HELBIDEAN dagoela erakustekoa) alde azaltzen dituen argudio juridikoak hauek dira:

-Ekonomia Itunaren 43. artikuluan ezartzen da, Euskadin helbide fiskala duten pertsonatzat joko direla “Euskadin euren egoitza soziala duten Sozietate Zerga ordaintzen duten pertsona juridikoak eta gainontzeko erakundeak, betiere, horien negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza bertan zentralizatuta dagoenean. Edo bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori Euskadin egiten bada. Irizpide horiek erabilia bizilekua non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena non daukaten hartuko da kontuan».

-Administrazioaren doktrinak eta jurisprudentziak behin eta berriz errepikatu dute urteotan “kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza egiazkoa elementu gehienak” dauden lekuan kokatzen direla, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduko 22. artikuluan adierazten den moduan: sozietatearen kontratazioa egiaztatzeko bulego bat, kontabilitatea eta egiaztagiria eramatekoa eta behar adina administratiboa osatua dagoena”. Haatik, ondoren adierazten denez, ebazpen administratibo eta judizial ezberdinen bidez inguruabar horiek xehatzen joan dira eta, horri dagokionez, gaineratzen denez “hainbat alderdi balioetsi behar dira, esate baterako, jasotako fakturak non izapidetzen diren, non igortzen diren fakturak, non eramaten den kontabilitatea, non izapidetzen diren erosketa-eskeak edo zerbitzuen erdiespenak, non dauden finantza-kudeaketak egiteko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

erabiltzen diren kontuak, non kudeatzen diren kobrantzak eta ordainketak, non egiten diren deklarazio fiskalak, non artxibatzen den dokumentazioa, non prestatu eta artxibatzen den administrazio-kontseilu eta batzar nagusietarako dokumentazioa, non osatzen diren urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, etab.”.

-Bada, ohartarazpen orokor horiek gatazka honetara ekarriz, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak adierazten duenez:

- Administrazio-organoaren bilkurak eta akziodunen batzar nagusiak deklaraturako helbide fiskalean egiten dira, Bilbon.
- 1 ADMINISTRARIAK ordezkutzen duen AHOLKULARITZA-ETXEA arduratzen da sozietatearen kontratazioa kudeatzeaz, kontabilitatea eramateaz, zerga-deklarazioak izapidetzeaz eta behar bezala legeztatutako kontabilitate-liburuak eta jasotako fakturak gordetzeaz (ez dago igorritako fakturarik). Zerga Administrazioako Estatu Agentziak argitzen duenez, egoera hori koherentea da enpresak berezko langilerik ez izatearekin. Kudeaketa horiek guztiak Bilboko 1 HELBIDETIK burutzen dira, 1 AHOLKULARITZA-ETXEAREN nahiz 1 ERAKUNDEAREN helbide fiskala dena. Fakturak helbide berean jasotzen dira.
- Zerga-deklarazio guztiak Bizkaiko Foru Aldundian aurkeztu dira.
- Sozietateak 1 UDALERRIKO (Lleida) banku-sukurtsal batean kontu bat du irekita. Haatik, kontu horretan ez da inolako mugimendurik ikusten 2008-2014 bitartean (ziurrenera, azken data 2010ekoa izango da, alegazioetarako oinarritzat hartutako txostenetako data kontuan hartuta). Bestalde, sozietateak kontu bat du irekita Bilbon kokaturako 2 BANKU-ERAKUNDEAREN sukurtsal batean.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

- Sozietatea eratu zenetik, Administrazio-kontseiluko kideen helbidea Bilbon kokatuta zegoen. 2008ko urtarrilaren 10ean Administrazio-organoaren osaera aldatu egin zen, eta 3 BAZKIDEA eta 1 BAZKIDEA pasa ziren administrari mankomunatu izatera, biak Lleidan helbideratuak. Dena den, epealdi horretan ere negozioa Bilbotik kudeatzen da, izan ere, bertatik burutzen dira kudeaketa administratiboa eta negozioaren zuzendaritza.

-Azkenik, 2010eko ekainaren 3an, administrari mankomunatu berri bat izendatu zen, eta 1 ADMINISTRARIA batu zen, helbide fiskala Bilbon zuen pertsona eta, aipatu den moduan, sozietatearen kudeaketa Bilboko 1 HELBIDEAN kokatzen den helbide fiskaletik burutzen zuena zuzenean.

10.- 1. ERAKUNDEAK ez du alegaziorik aurkeztu.

11.- BFAk azken alegazioak 2015eko uztailaren 22ko data duen idatzi baten bidez aurkeztu zituen, gatazka jartzeko bere idatzian barneratzen ziren aurrekari eta zuzenbidezko oinarri guztiak berretsiz. Horrez gain, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak 2015eko martxoaren 31ko idatzian egindako baieztapenak ezeztatzeko hainbat argudio eman zituen, zehazki esatera:

a) Arbitraje Batzordeak, abenduaren 22ko 29/2011 Ebazpenean (zuzenbidezko seigarren oinarria) adierazi zuenez (gerora 2014ko maiatzaren 5eko Auzitegi Gorenaren Epai bidez bertan behera geratu bazen ere, denboraz kanpo egotearekin lotutako arrazoi bat dela medio), Batzar Nagusiak leku jakin batean egitea ez da irizpide erabakigarria helbide fiskalari dagokion kontua ebazteko.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

Ebazpen horretan (zuzenbidezko hamargarren oinarria) Arbitraje Batzordeak garrantzia berezia ematen dio administrazio-organoko kideen bizilekuari.

Hori dela eta, BFAk adierazten duenez, "1 ERAKUNDEA erakundeak, 2008ko urtarriletik bi administrari ditu, hain zuzen, 3 BAZKIDEA eta 1 BAZKIDEA bazkide maioritarioak, biak Lleidan bizi direnak, lurralde erkidean.

2010eko ekainaren 3ra arte ez zuten 1 ADMINISTRARIA izendatu sozietateko administrari mankomunatu modura, eta interesgarria da gatazka honekin lotuta nabarmentzea haren izendapenaren data 2010eko martxoaren 8a (Bizkaiko Foru Ogasunak erakundeari jasandako BEZ zerga justifikatzeko fakturak eskatu zizkion eguna) igaro eta ondorengo dela.

Bizkaiko Foru Ogasuna ez dator bat Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren asmoarekin, hots, 1 ADMINISTRARIA administrazio arloko kudeaketak burutu eta negozioak zuzentzeaz arduratzeko pertsona izateko asmoarekin, izan ere, 2007ko abenduaren 4an 1, 2 eta 3 BAZKIDEEN artean hainbat partizipazio banatu ziren, kapitalaren % 66,66ren baliokide ziren partizipazioak eta, bazkide horiek, beranduago, 2008ko azaroaren 25ean, partizipazio gehiago baitaratu zituzten kapital-zabalkuntza egin zelarik, Lleidan kokatutako lursail bat ematean egindako diruz aparteko ekarpen modura (...), horrek 1 ADMINISTRARIAREN partizipazioaren diluzioa eraginez.

b) Maiatzaren 2ko Arbitraje Batzordearen 11/2011 Ebazpena oinarritzat hartuz (zuzenbidezko hamahirugarren oinarria), administrarien bilkurak, bazkideen batzarrak eta liburuen jarraipena egiteko lekuari buruz, zera baieztatzen da:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

“Kontabilitatea eta gainerako merkataritza-dokumentazioa eraman eta jarraitzeko lekuaren betekizuna enpresa baten helbide fiskala finkatzeko nahikoa betekizun dela iritziko balitz, nahikoa erraza izango litzateke helbide fiskala kokatzea, bazkideei komeni moduan, egiazko jarduera ekonomikoaz eta negozioen egiazko zuzendaritzaz aparteko Administrazio bati dagokion zerga-eremupean, eta horrek Zerga arloko Administrazioek horiek kudeatu, ikuskatu eta kontrolatzeko zailtasuna ekarriko luke”.

c) Erakundeak burututako jarduera ekonomikoari dagokionez, BFAk irizten du, “sozietatek bere jarduera ekonomiko guztiak orain arte Lleidan burutu duela eta etorkizunean ere bere jarduera bertan garatzea aurreikusten duela, bertan bizi baitira bere bazkide maioritarioak, erabakitzeko ahalmena duten eta nahikoa ordezkariak duten bi administrari mankomunatu bederen, eta sozietateak bertan ibilgetu guztia duela, hots, bi garaje-plaza eta orube bat (orubea 2008ko azaroaren 25eko kapital-zabalkuntzaren osteko diruz aparteko ekarpenaren ondorio)”, eta gaineratzen du “ibilgetu gehien dagoen lekuaren irizpide subsidiarioa aplikatu beharko balitz, Ekonomia Itunaren 43. artikuluko 4. ataleko b idatzi-zatian aipatzen dena, helbide fiskala ere Lleidako probintzian kokatuko litzateke, lurralde erkidea”.

d) Azkenik, BFAk adierazten du, “deklaraturako helbide sozial eta fiskalean soilik sozietateari merkataritza arloko aholkularitza emateko eta enkargu bidez kontabilitatea eramateko funtzioak garatuko liratekeela, uneoro lurralde erkidean bizi diren sozietateko administrariak emandako argibideei jarraituz”.

Horregatik guztiagatik, BFAk 1 ERAKUNDEAREN helbide fiskala Lleidan lekutzen zela ulertzen du, 2007ko abenduaren 4ko atzeraeragin-datarekin, izan ere, egun hartan izen soziala, helburu soziala eta helbide deklaratu aldatu egin

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

ziren eta, aldi berean, sozietatea egungo jabedunek baitaratu zuten. Jabedun horiek Lleidan daude helbideratuta, bertan baitauka erakundeak bere ibilgetu guztia eta bertan garatzen baitu bere egiazko jarduera ekonomikoa”.

12.- Prozedura hori Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen araudia onartzen duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuan xedatuta dagoenaren arabera izapidetu da.

II.- ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Gatazka hau maiatzaren 23ko 12/2002 Legez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunaren 43. artikuluko laugarren atala aplikatuz ebatzi behar da. Aipatu ataleko b idatzi-zatian ezartzen denez, Ekonomia Itun honen ondorioetarako honako hauek Euskadin ikuspegi fiskaletik helbideratuta daudela ulertuko da:

b) Pertsona juridikoak eta sozietateen gaineko zergaren menpean dauden gainerako erakundeak, Euskal Autonomia Erkidegoan baldin badute sozietate-egoitza eta sozietate-egoitza horretan baldin badute zentralizatuta administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza. Edo bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori Euskadin egiten bada. Irizpide horiek erabilia bizilekua non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena non daukaten hartuko da kontuan».

(...)

Modu horretan, oro har, egoitza sozialarekiko kontzeptu autonomia den helbide fiskala bat dator horrekin, bertan kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza modu eraginkorrean zentralizatuta daudenean; aldiz, hori gertatzen ez bada, kudeaketa- edo zuzendaritza-tokia da. Azken buruan, ibilgetu gehien dagoen lekuko arau subsidiarioa betetzea agintzen da.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

Haatik, Ekonomia Itunean ez dira administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza egiaz dauden lekua identifikatzeko arauak zehazten. Horrenbestez, dagokion erabakia hartzerakoan inguruabar zehatzei erreparatu behar zaie (alderatu, ildo beretik, 2016ko maiatzaren 3ko Auzitegi Gorenaren Epaia (Ekonomia Itunari dagokion 900/2015 kasazio-errekurtsoa).

2.- Aipatzekoa da zein den gatazka honen xedea. Xedea 1. ERAKUNDEAREN helbide fiskalaren kokapenari buruzko eztabaida da, eta ez BEZaren itzulera. Egia da BFA helbide fiskala egiaztatzen hasi zela BEZ itzulketa zela medio, baina besterik ez. Hori argitzea egokia da, izan ere, espedientean barneratzen den idatzi batean erakunde hori kexu azaltzen da BEZ zergari dagozkion kuotak itzultzean izandako atzerapenagatik. Dena den, jakina denez, gatazka Arbitraje Batzordearen aurrean izapidetzeak ez du geldiarazten BEZaren itzulera, izan ere, erakundeak berak adierazi bezala, Arbitraje Batzordearen Araudia onartzen duen 1760/2007 Errege Dekretuaren 15.2 artikulua honako hau xedatzen du:

“2. Harik eta eskumen-gatazka ebazten ez den arte, kasuan kasuko zergadunak zergapetzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributu arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Administrazio horien jarduketak, bestalde, Arbitraje Batzordearen arabera, administrazio eskudun berriak jatorria duen datara atzeratu beharko ditu bere jarduerak, ondorioetarako”.

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldatzen duen 21eko 7/2014 Legetik abiatuta (lege horren bidez, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontzertu Ekonomikoa onartu zen), araudi-aurreikuspen horrek legezko aurreikuspen zehatza du; izan ere, honako atal berria sartzen da 66. artikuluan:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

«Hirugarrena. Eskumen-gatazka dagoenean, harik eta ebazten ez den arte, kasuan kasuko zergadunak zergapetzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributu arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Horrelakoak Arbitraje Batzordearen erabakiaren arabera tributu-foru berria erabili behar den egunera eramango dira, bestalde».

3.- Beraz, Auzitegi Gorenak berretsitako Arbitraje Batzorde horren behin eta berriro errepikatutako etengabeko doktrina da, “pertsona juridikoen helbide fiskala zehazterakoan, axola duena ez dela egoitza soziala; aldiz, irizpide erabakigarria horren negozioen kudeaketa administratiboaren eta zuzendaritzaren kokapen eraginkorra da. Hori gai konplexua da, horren inguruak ez baitira definitzen. [Ondorioz,] helbide fiskalaren kokapena (...) frogatu egin beharko da, baldintza horiek toki jakin batean gertatzen direla egiaztatuta». Horixe adierazten dute, besteak beste, honako hauek: martxoaren 6ko R4/2009 Ebazpena, 5/2008 espedientea (otsailaren 8ko AGE 1341/2010ek berretsia, erre. 191/2009); urtarrilaren 25eko R2/2013, 02/2010 espedientea; urtarrilaren 25eko R3/2013, 03/2010 espedientea; urtarrilaren 25eko R4/2013, 04/2010 espedientea, otsailaren 22ko R5/2013, 05/2010 espedientea; otsailaren 22ko R6/2013, 06/2010 espedientea.

4.- Kasuarekin bat dator Arbitraje Batzorde honek “administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritzako nozioa” kontzeptu juridiko zehaztugabea dela dioen irizpidea, eta hori zehazteko kasuan kasuko inguruabarrak hartu behar dira kontuan” (alderatu; maiatzaren 2ko R11/2011 Ebazpenak, 29/2008, 30/2008, 32/2008, 38/2008, 39/2008 eta 40/2008 pilatutako espedienteak (urtarrilaren 23ko AGE 126/2013 bidez berretsia, 366/2011 errekurtsioa; martxoaren 30eko R3/2012, 31/2008 espedientea; irailaren 28ko R11/2012, 15/2009 espedientea; irailaren 28ko R12/2012, 8/2010 espedientea, abenduaren 27ko R18/2012, 19/2010 espedientea; uztailaren 24ko R14/2013, 31/2010 espedientea).

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

5.- Horrek gatazka honetan ematen diren inguruabarrak aztertzeraz garrantzitsutzat jotzen ditugunak hura ebazteko:

-Bilbon onartutako 2005eko apirilaren 25eko data duen eskritura publiko bidez 2 ERAKUNDEA sozietatea eratu zen, euro bateko 6.020 partizipazioko kapital sozial batekin, horietako 60 1 ADMINISTRARIAK sinatuak, eta helbide fiskala 3 UDALERRIKO 2 HELBIDEAN (Bizkaia). Horrek adierazten du 1 ADMINISTRARIA erakundeko partizipazioen titularra izan dela hasieratik. Hauek dira Administrazio-kontseiluko kideak: 1 KONTSEILARIA, 2 KONTSEILARIA, 3 KONTSEILARIA eta 4 KONTSEILARIA. Administrazio Kontseiluko kide guztiek Euskal Autonomia Erkidegoan dute beren egoitza.

Bilbon onartutako 2007ko irailaren 28ko data duen eskritura publiko bidez, sozietatearen partizipazioak salerosteari buruzkoa, 1 ADMINISTRARIAK 5.960 baitaratu zituen (aurretik zituen partizipazioei gaineratuta 6.020 batuz, hau da, sozietatearen kapitala banatzen duten partizipazio guztiak). Partaide bakarrak Bilboko 3 HELBIDEAN du bere helbide fiskala.

-Bilbon onartutako 2007ko abenduaren 4ko data duen eskritura publiko bidez, sozietatearen partizipazioak salerosteari buruzkoa, 1 ADMINISTRARIAK 2.007 partizipazio saldu eta eskualdatu zizkion 3 BAZKIDEARI eta beste 2.007 partizipazio 1 BAZKIDEARI. Horrek esanahi du partaide bakarra izatetik 2.006 partizipazioen titular izatera pasa zela. Bi partaide berriek Lleidan dute beren helbide fiskala. Alde erosleen ordezkari modura 1 ORDEZKARIAK jardun zuen, Euskadin duena helbide fiskala. Aurreko akordio hori erakundearen helbide sozialean hartu zen.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

-Bilbon onartutako 2007ko abenduaren 4ko data duen eskritura publiko bidez, izena aldatzeko, helburu soziala aldatzeko eta helbidea lekualdatzeko sozietatearen akordioak jendaurrean ipini ziren. Zehazki, azken horri dagokionez, helbide soziala bere uneko egoitzatik (3 UDALERRIKO 2 HELBIDEA Bizkaian) Bilboko 1 HELBIDERA aldatzen dela adierazten da. Azken akordio hori erakundearen helbide sozialean hartu zen.

-Lleidan onartutako 2008ko urtarrilaren 10eko data duen eskritura publiko bidez, Administrazio-organoa berritzeko akordioak jendaurrean ipini ziren, eta 3 eta 1 BAZKIDEAK izendatu zituzten sozietateko administrari mankomunatu. Bi administrariak Lleidan dute beren helbide fiskala. Aurreko akordio hori erakundearen helbide sozialean hartu zen, hots, Bilbon.

036 eredu, hau da, enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan alta, aldaketa eta baja emateko Zentsu-deklarazioa, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailean aurkeztu zen, 2008ko uztailearen 3ko sarrera-datarekin.

Madrilen onartutako 2008ko azaroaren 25eko data duen eskritura publiko bidez, kapital soziala 386.022 euroan gehitzeko (sozietateko beste 386.022 partizipazio jaulki eta zirkulazioan jarriz, 1 BAZKIDEARI, 2 BAZKIDEARI eta 3 BAZKIDEARI esleituak sozietateari 386.022 eurotan balioetsitako eta jabetza indibisoko lursail bat ematean egindako diruz aparteko ekarpenaren kontraprestazio modura) sozietateen akordioak jendaurrean ipini ziren. Akordio hori erakundearen helbide sozialean hartu zen. (Horrenbestez, 1 ADMINISTRARIAREN partaidetza bertan behera geratzen da, 2.006 partizipazio dituen arren).

-Bilbon onartutako 2008ko abenduaren 30eko data duen eskritura publiko bidez, sozietatearen partizipazioak salerosteari buruzkoa, 1

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

ADMINISTRARIAK, 3 ERAKUNDEAREN administrari bakar modura jardunez, 1 ERAKUNDEAREN bi partizipazio baitaratu zituen. Alde saltzaileen ordezkari modura 1 ORDEZKARIAK jardun zuen, Euskadin duena helbide fiskala.

-2 UDALERRIAN (Lleida) onartutako 2010eko ekainaren 3ko data duen eskritura publiko bidez, administrazio-organoaren egitura aldatzeko (bi administrari mankomunatu izatetik hiru izatera igaroz; modu horretan, ordezkatzeko ahala gutxienez bi administrariaren artean erabil zitekeen modu mankomunatuan) sozietatearen akordioak jendaurrean ipini ziren. 1 ADMINISTRARIA izendatu zuten administrari mankomunatu berri modura, Bilbon helbide fiskala zuena.

-Dokumentazio guztia (036 modeloak, identifikazio fiskalerako zenbakia eskuratzekoa, helbidea aldatzekoa, deklarazio fiskalei dagokiena, etab.) Bizkaiko Foru Aldundian aurkeztu eta izapidetu da. Informazio-deklarazioei (190) dagokienez, Lleidan helbideratutako profesional baten errendimenduak (2 NOTARIOA, ----- IFZ) ordaindu ziren soilik.

-Gizarte Segurantzaren datu-basetik jasotako datuen arabera, sozietateak ez du langilerik alta egoeran.

-Sozietatea 3 konturen titularra da. 2 Lleidan eta 1 Bilbon. Halaxe da, 2010eko urriaren 10ean banku-kontu bat ireki zuen 1 UDALERRIAN (LLEIDA) kokatutako 1 BANKU-ERAKUNDEAREN sukurtsal batean. Kontu horretan ez da mugimendurik egon eztabaidagai den dagokion zehar. Halaber, beste banku-kontu baten titularra da, 3 UDALERRIAN (LLEIDA) kokatutako 3 BANKU-ERAKUNDEAREN sukurtsalean irekia, eta kontu horretako baimenduak dira 1, 2 eta 3 BAZKIDEAK. Azkenik, Bilboko 2 BANKU-ERAKUNDEAREN 1 SUKURTSALEAN irekitako beste kontu baten titularra da, non 1 ADMINISTRARIA dagoen baimenduta.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

-Erakundea Lleidan kokatutako hiru higiezinaren titularrak da.

-Erakundeak oraindik ez du fakturarik igorri.

-Fakturak eta gainerako korrespondentzia Bilboko 1 HELBIDEAN jasotzen dira eta lokal berean gordetzen dira.

-Administrazio-organoaren bilkurak eta akziodunen Batzar Nagusiak Bilbon egiten dira, espedientean dauden eskritura publiko ezberdinetan jasotako adierazpenen arabera, eta baita 1 ADMINISTRARIAK egindako adierazpenen arabera ere.

- Erakundea 2007ko abenduaren 5az geroztik dago alta egoeran jardura ekonomikoen 50110 epigrafean, "Eraikuntza osoa, higiezinaren konponketa" izenekoan; eta 2009ko urriaren 1az geroztik 86120 epigrafean ere agertzen da, "Lokalen alokairua" izenekoan. Bi jardura horietan kuota estatu mailakoa da.

-Erakundearen jardura nagusia higiezinaren alokairu bidezko eraikuntza eta ustiapena da, eta Bilboko helbidetik burutzen da. Haatik, jarduerak ia hasteke daude, eta inbertsio-proiektu ezberdinak aztertzeko fasean dago oraindik murgilduta.

-Kontabilitate-liburuak, behar bezala legeztatuak, 1 AHOLKULARITZA-ETXEAREN bulegoetan gordetzen dira. Kontabilitatea eramateko eta bestelako eginkizun administratiboak betetzeko kontratatutako aholkularitza-sozietate horrek 1 HELBIDEAN du lokala kokatuta, hain zuzen, deklaraturako helbide fiskala dena. Beraz, kontabilitatea lokal berean burutzen da.

Erakundeko ordezkaria den 1 ADMINISTRARIAREN hitzetan, administrazio-kudeaketa eta negozioaren zuzendaritza Bilbotik burutzen ziren eta burutzen dira oraindik.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

Datu horietatik ondorioztatzen denez, helbide fiskala Bilbon dago kokatua. 2007ko abenduaren 4tik 2010eko ekainaren 3ra bitarteko epealdian zehar bi Administrari bakarrak Lleidan helbideratuta egon arren, negozioa Bilbotik kudeatzen zen, izan ere, bertan egiten ziren administrazio-organoaren bilkurak eta Batzar Nagusiak, bertan jasotzen zen korrespondentzia guztia eta bertatik eramaten zen kontabilitatea, nahiz eta bere merkataritza-jardunerako lur eta eraikinak Lleidan egon, izan ere, jarduera burutzen den lurraldea eta erakundearen helbide fiskala hartzen duen lurraldea ez dira derrigorrez berdinak izan behar.

Kontuan izan behar da erakundeak deklaraturako helbide fiskalak legezko presuntzioa duela. Deklarazio hori bat dator helbide soziala Bizkaian etengabe mantentzearekin. Probaren zama Bizkaiko Foru Aldundiarengan dago, izan ere, Aldundia da deklaraturako helbidea egiazko helbidea dela ukatzen duena.

-Bizkaiko Foru Aldundiaren aldeko froga bakarra da sozietateko bi administrariak 2008ko urtarrilaren 10etik 2010eko ekainaren 2ra bitartean ez zirela Euskadin bizi. Dena den, horrek ez du esanahi negozioa Lleidatik kudeatzen dela ulertu behar denik derrigorrez.

-Ez da baldintza bat jarduera ekonomikoa burutzen den lurraldea eta helbide fiskala hartzen duen lurralde berdina izatea (alderatu, 2016ko Auzitegi Gorenari Epaia eta 900/2015 zenbakidun kasazio-errekurtsoa).

. Erakundeak jarduera urria duenez (jarduerak ia ez dira hasi ere egin, eta inbertsio-proiektu ezberdinak azterketa fasean daude oraindik, horregatik ez du langilerik), sinesgarria da erakundearen kudeaketa Bilbotik burutu izanaren azalpena.

Nabaria da 1 ADMINISTRARIAREN presentzia jarraitua erakundearen. Hori dela eta, sinesgarriak dira sozietatearen egiazko kudeaketaz bera arduratzen dela dioten bere adierazpenak; baieztapen horiek Bizkaiko Foru Aldundiak ezeztatu

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

ez dituen gertakarien abala dute. Gertakari horien artean aipa daitezke, besteak beste, kontabilitate-liburuak Bilbon daudela behar bezala legezkatuta, administrazio-organoaren bilkurak eta akziodunen Batzar Nagusiak Bilbon egiten direla eta, ondorioz, koherentea da eskritura publiko ugari hiri horretako notariotzan ematea, fakturak eta korrespondentzia Bilboko 1 HELBIDEAN jasotzea eta lokal berean gordetzea, jasotako fakturetan Bilboko helbidea agertzea, sozietateak kontuak Bilbon izatea (Lleidan ere badituen arren) eta dokumentazio guztia (036 modeloak, identifikazio fiskalerako zenbakia eskuratzekoa, helbidea aldatzekoa, deklarazio fiskalei dagokiena, kapitalaren gehikuntzari dagokiona barne etab.) Bizkaiko Foru Aldundian aurkeztu eta izapidetu izana.

Eskualdatze eta Dokumentatutako Egintza Juridikoen gaineko Zergaren auto-likidazioa, 2008ko azaroaren 25ean egindako kapital-zabalkuntzari dagokiona, Bizkaiko Foru Aldundian aurkeztu izanak erakundeak bi Administrazioari emandako azalpenaren koherentzia berresten du eta, horrenbestez, helbide fiskala Euskadin dagoela adierazteko emandako azalpenarena, izan ere, Ekonomia Itunaren 31. artikuluko bosgarren atalean ezartzen denez, Foru Aldundiei dagokie sozietateen eragiketetan Eskualdatze eta Dokumentatutako Egintza Juridikoen gaineko Zergaren ordainarazpena, inguruabar hauetakoren bat ematen denean:

- a) Erakundeak zerga-egoitza Euskadin eduki behar du.
- b) Erakundeak sozietate-egoitza Euskadin eduki behar du, baldin eta benetako zuzendaritza-egoitza Europar Batasuneko kide diren estatuetakoren bateko beste zerga-administrazio bateko lurralde-esparruan ez badago; edo, hala egonik ere, estatu horrek ez baldin badu sozietate-eragiketa antzeko beste zergaren batekin kargatzen.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
28/2011	R16/2016	2016-07-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Ordezkaritza	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

c) Erakundeak eragiketa batzuk Euskadin ere egin behar ditu, baldin eta benetako zuzendaritza-egoitza eta sozietate-egoitza Europar Batasuneko kide diren estatuetakoren bateko beste zerga-administrazio bateko lurralde-esparruan ez badago; edo, hala egonik ere, estatu horrek ez baldin badu sozietate-eragiketa antzeko beste zergaren batekin kargatzen.

Azken finean, elkarren artean koherenteak diren inguruabar batzuen aurrean gaude, eta guztiak batuta konfiantza gehiago ematen dute Bizkaiko Foru Aldundiak kontrako adieran azaldutako inguruabarrek baino, eta Aldundiari dagokion derrigortuak, zergadunak, deklaraturako helbide fiskalaren ziurtasunaren legezko presuntzioa suntsitzea.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

1.- 1 ERAKUNDEAREN (IFZ: -----) helbide fiskala 2007ko abenduaren 4az geroztik Bilboko 1 HELBIDEAN kokatuta zegoela adieraztea.

2.- Jarduketak amaitutzat jotzea.

3.- Ebazpen hau Bizkaiko Foru Aldundiari, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari eta erakunde interesdunari jakinaraztea.